



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Zuberoa, gizarte eleaniztuna:
hizkuntzen erabilera XIX.
mendearen bukaeran

Elorri Arcocha Mendinueta

33-40 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.02.04>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Zuberoa, gizarte eleaniztuna: hizkuntzen erabilera XIX. mendearen bukaeran

Elorri Arcocha

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, doktoregaia.

elorri.arcocha@unavarra.es

Laburpena

XIX. mendearen bukaeran Frantziako Hirugarren Errepublikak frantses hizkuntza nazioaren sinbolo gorenena bihurtu zuen eta estatuaren barruan zegoen biztanleria landatarra kultura nagusi eta ofizial baten barruan integratzeko indarrak areagotu zituen. Ipar Euskal Herrian Eliza katolikoa euskararen defendatzaile sutsu moduan agertu zen. Elizgizonek euskara Errepublikako lekuko ordezkarietara aurre egiteko erabili zuten. Baina, kontuan izanik Zuberoa eskualde eleanitza zela, zer nolako estrategiak garatu zituzten klase herrikoiek konfrontazio egoera horri egokitzeko? “Historia behetik” ikuspegitik abiatuta, gure helburu nagusia galdera horri erantzun bat ematea da.

Hitz gakoak: Zuberoa, Frantziako Hirugarren Errepublika, hizkuntzak, klase herrikoiak, landa-eremua.

Abstract

At the end of the XIX century, the Third French Republic has turned the French language into the main symbol of the nation and was conducting a policy to integrate rural areas into the official and main culture. In the Basque region, the clergy were a strong supporter of the Basque and used it to confront republican agents. But how was this confrontation supposed to take place, considering that the Soule was a multilingual region? This paper aims at explaining from the point of view of the “history from below” the strategies used and developed by the lower classes to adapt to the historical context they were getting through.

Keywords: Soule, French Third Republic, languages, popular classes, countryside.

1. Sarrera eta motibazioa

Artikulu honen esparru kronologikoa XIX. mendearen bigarren erdialdean kokatzen da, nahiz eta geroagoko adibideak ere eskaintzen diren, gure helburu nagusiari erantzuten dioten heinean eta historia kulturalaren esparruan jarduten ari garen neurrian.

Garai hartako Zuberoa, mugako eskualde bat zen heinean, hizkuntza ezberdinen arragoa zen. Alde batetik, klase herrikoien¹ artean euskara hizkuntza hedatuena zen, bestetik, bearnesa eta gaztelania gertuko hizkuntzak ziren². Azkenik, frantsesaren erabilera goi-mailako klaseen artean arruntagoa bazen ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, klase herrikoiak hizkuntza horren ezagutzaren garrantziaz gero eta gehiago jabetu ziren, ezagutza horren erregistroa Yves Le Barrek (1995)³ deritzon “ez paritarioa”n luzez mantendu bazen ere.

Ildo horri jarraikiz, Joshua Fishman (1988) eta Dell Hymes (1972) bat zetozen esatean gizarte baten baitan hizkuntza bakar baten erregistro ezberdin edota hizkuntza ezberdinak erabiltzen direla adierazi nahi diren kodeen, baloreen eta, oro har, egoeraren arabera: “No normal person, and no normal community, is limited to a single way of speaking, to an unchanging monotony that would preclude indication of respect, insolence, mock seriousness, humor, role distance, and intimacy by switching from

¹ Terminoa aski zabala eta problematikoa denez, Roger Chartierren (1984, 237 or.) azalpena jarraituko dugu eman nahi diogun zentzua ildo horretan doalako: “I take ‘popular classes’ to mean, by default, readers who did not belong to ‘the three robes’, as Daniel Roche put it: the black robe of the clerics ; the short robe of the nobility ; and the long robe of a varied group of low -or high-grade officials, lawyers and attorneys, to which must be added the medical profession”.

² Ikusi adibidez Sandra Otten liburua “Artzain-komunitate euskalduna (I): bortuko ingurua” (1994-1995). Gaztelaniari dagokionez, emigrazioaz gain, Joel Larroquek eta Robert Elissondok (2021, 38 or.) Nafarroatik eta Aragoitik espartin industrian lan egitera joandako langileen presentzia Mauleko Maulegaña auzoan nabarmena zela azpimarratu dute, bertan kokatzen baitziren deituriko “ainarak”. Ikusi ere [Les hirondelles à Mauléon | IKERZALEAK](#).

³ La Barren lana online dago kontsultagai: [Les parlers de la foi - Langues et usages sociaux en Basse-Bretagne - Presses universitaires de Rennes \(openedition.org\)](#).

one mode of speech to another” (Hymes, 1972, 38 or.).

Izan ere, XIX. mendeko Zuberoan hizkuntzek ez zuten ez rol ez funtzio berdina betetzen. Orokorki hizkuntzen jarduguneak⁴ bereiziak zeuden, hots, hizkuntzen arteko bereizketa funtzional bat zegoen (Géa, 2015, 64 or.), edo beste modu batera esanda, egoera diglosikoan bizi ziren hizkuntzak. Gure kasuan, diglosia zer den zehazteko, Claude Hagège (2000, 98 or.) “bilinguisme inégalitaire” kontzeptuaren azalpena bereziki aproposa iruditzen zaigu: eleaniztasun egoera batean, hizkuntza bat “est en position beaucoup plus forte du fait de son statut social ou de sa diffusion nationale ou internationale, rendant la transmission entre générations de l'autre langue de plus en plus défailante au fil du temps”.

Dudarik gabe XIX mendean zehar estatu frantsesaren indarrak landa-eremuko jendea eskolatzeko eta alfabetatzeko nabarmendu ziren heinean (Lehning, 1995, 131 or.) euskararen egoera diglosikoa areagotu zen. Le Barrek (1995) Britainia Beherearen kasuan azaltzen du XIX. mendearen erdialdean gizarte instituzioek, eskolak eta zerbitzu militarrek bereziki, bretoiera eta frantsesaren arteko bereizketa funtzionala azkartu zutenean, bretoiera erregistro “paritarioan” nagusi mantendu zela⁵. Euskararekin ere antzeko egoera bat gertatu zen: familia eta lagunarteko komunikazioan euskara hizkuntza nagusia bazen, frantsesa ofizialtasunari, hots, erregistro “ez paritarioari”, lotuta luzez mantendu zen.

Hala eta guztiz ere, ikuspegi historiko batetik abiatuta, klase herrikoientzat frantsesaren erabateko ezjakintasan klase horien menpekotasun sinbolikoa zekarren berekin, frantsesa bera frantses estatu-nazioaren sinbolo goren eta hizkuntza ofizial bakarra zelako. Azkenik, klase herrikoientzat frantsesa euren askapen sinbolikoa eman ziezaiekeen baliabidea bihurtu zen, nahiz eta euskara ez zen baztertua izan, gainezarpenak ere gertatu ziren.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Hori dela eta, gure lanaren helburu nagusia XIX. mendearen bukaerako Zuberoako paisaia linguistikoaren konfigurazioaren irudi bat eskaintzea da, klase herrikoiek hizkuntzez egiten zuten erabileran enfasi berezia jarritz.

Horretarako bi fondo nagusi erabili izan ditugu: Duhalt eta Elissondo gutunez osatutako fondoak. Gutunen kasuan, idatziaren esparruna bagaude ere, hizkuntzen erabilera-eremuetara hurbiltzen gaituzte, garaiko ahozko lekukotasunen ezean oinarritako iturriak direlarik. Lehena Baionako eta Euskal Herriko Artxibategian kontsultagai dago; bigarrena, aldiz, fondo pribatu bat da.

Duhalt fondoari dagokionez, ikertzen ari garen esparru kronologikoaren baitan Thomas izeneko jaun batek errezibitu zituen ia gutun guztiak (halere, berak gordetutako baina beste norbaiti zuzendutako gutunak ere aurki daitezke). Duhalt familiak Zuberoan zuen jatorria (Muskildi, Urdiñarbe eta Maule), baina ahaide askok Ameriketara emigratu zuten. Thomas bera Zuberoako eliteen ordezkari bat zen: 1849an Veracruzera (Mexiko) abiatu zen eta dirua egin ondoren Zuberora itzuli zen 1852an. Gainera, 1865-1873 bitartean Urdiñarbeko alkatea izan zen. Hots, Thomas Duhalt ez zen Antzinako Erregimenatik zetorren notable bat, baizik eta Annie Moulinek (1988, 111-112 or.) “petits notables, souvent issus de la ‘bourgeoisie’ rurale” deritzona. Notable bat izanik, Thomasek bere inguruan eratutako klientelismo sareak gizarte-klase askotariko pertsonen eskutitzak jasotzea eragin zuen: hortxe datza, hain zuzen, Duhalt fondoaren aberastasuna eta gure ikerketarako interes handiena.

⁴ Ikusi Zaldibe, Joly eta Gardner, “Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa” (2015, 211-217 or.). Fishmanek (1988, 75 or.) “dominios” deitzen ditu: “los dominios son tan reales como las propias instituciones sociales de las comunidades lingüísticas, y muestran un notable paralelo con las instituciones sociales fundamentales”. Le Barrek (1995), bestaldetik, “idiome” kontzeptua erabiltzen du: “Chaque institution [sociale] crée son propre espace de communication. Le forme linguistiques qui lui son liées, et que nous appelons son *idiome*, ont une durée de vie, une aire géographique et une diffusion sociale en rapport avec celles de cette institution”.

⁵ Jardunguneen arabera, pertsonak bi erregistro mota erabiltzen dituzte, paritarioa eta ez paritarioa: “Le premier, essentiellement limité à l'oralité, est familier et exige la présence d'un interlocuteur. Le second, fondé sur l'écriture, est formel et possède une capacité de communication universelle au sein de la formation sociale” (Le Barre, 1995).

Elisondo fondoak, bestaldetik, Ameriketara emigratutako familia fondoekin antzekotasun gehiago dauka. Eskutitz gehienak Clément Pélanne-Elisondori zuzenduta daude⁶. Clément 1851n Argentinara abiatu zen eta 1868an berriz Sohütara itzuli zen; urte horretan bertan familiaren etxaldea erosi zuen.

Bi fondo horiek leku ezberdinetan bizi zen jendearen eskutitzak irakurtzea ahalbidetu digute: Erdialdeko eta Hego Ameriketara joandako pertsonen gutunak egoteaz gain, Europako zenbait hiritara (hala nola, Paris, Bordele eta Madril) emigratutako, bai eta Zuberotan bertan geratutako pertsonen gutunak ere aurki ditugu. Horrek, gutunetan ageri den harreman pertsonalen, rol-harremanen eta gizarte-klaseen aniztasunarekin batera, hizkuntzen erabilera-eremuak eta erabilera bereiztuetan eragin zuten faktore nagusiak identifikatzeko eta aztertzeko parada eman digu.

3. Ikerketaren muina: Eleaniztasuna egunerokotasunean

3.1 Frantsesaren zabalkuntza: St. Jean Chuhandoren kasua

Giovanni Levik (1989, 13 or.) Antzinako Erregimeneko Piemonte eskualdeko herri baten nekazarien bizimodua eta idiosinkrasia ikertzean nekazari horiek arrazionaltasun sistema propio bat zutela defendatu zuen. Arrazionaltasun horrek landa-eremuko populazioari bere ingurumenean garatzen ari zen gizarteak eskaini zitzakeen abantailez baliatzea ahalbidetzen zion, bai eta transformazioak egitea ere. Gure kasuari dagokionez eta Leviren ildotik jarraituz, frantsesaren zabalkuntza inposizio huts gisa ikusteak klase herrikoien estrategiak alboratzea darama. Kontuan hartu behar da, aldiz, kultura nagusi horren esparruan Ipar Euskal Herriko landa-eremuko klase herrikoiak frantsesaren garrantziaz jabetu zirela, baita hizkuntza horren menperakuntza ekar ziezaikeen abantailez ere. Frantsesa bere leku espezifiko eta berezia izaten hasi zen, jendea, jabetze prozesu horretan, diglosia egoerak berekin ekar zezakeen ondorioak kontzienteki ez arduratu arren (euskararen desagerpena ala erabateko baztertua). 1874an Baionan zerbitzu militarra egiten ari zen St. Jean Chuhandok izeneko mutil batek Thomas Duhalti bederatzik gutun bidali zizkion⁷: sei euskara hutsean idatzita daude eta hiruk euskara eta frantsesa nahasten dituzte. Azken horietako batean Chuhandok argi adierazten du alfabetatua egotearen eta frantsesa ikastearen beharra: “Mon cher ami Tomas dit lui a Urruty de mar che a lecole son fis saint jean pour apprendre féré son nont autre man il pey era uno tre taus isi il y quelces eun qui sont maleurese se qui nese pas fere son non et quon prendre un pes de franse sot malereuse”⁸.

Ageri da Chuhandok ez zekiela frantsesaz idazten. Are gehiago, ortografia eta hitzen joskera ikusirik frantsesaz ez zela inoiz alfabetatua izan esango genuke. Gainera, frantsesa eta euskara nahasten duen beste gutun baten bukaeran hauxe gehitzen du: “je ne se pas si vous lires mes je ve bien aprandre quomesa”; esaldi horrek frantsesa ikasteko borondatea adierazten du. Daniel Fabrek dioen moduan (1997, 16 or.): “Dans l’espace public, et d’abord à l’école, on n’accède au contact des autres et à la reconnaissance de soi qu’en exhibant ces preuves, linguistiques et graphiques, de l’appartenance à la société où la lettre fait foi”. Oro har, Ipar Euskal Herriko klase herrikoien ikuspegitik, frantsesa garai horretan kultura nagusiari lotuta dago oraindik.

Gutun gehienetan Chuhandok kasernako bizia aipatzen du, eta bere amari mezuak pasarazten dizkio. Etxeko lanez idazten duenean ez da harrigarria gehienetan euskaraz egiten duela baieztatzea. Gutunetako batean, halere, frantsesa ere erabiltzen du gai horren inguruan ari denean. Hona hemen pasarte bat: “Mon chera mi duhalt je lesé u les nouvell des la maison ime la dit Pierre ahastoy imadi qui l’y a bou cou des regain et sonts tout tre bien et aussi ancore imadis che moi qui l est mordeus ? agnau vou me dire des quel sont mon Mon cher ami Duhalt vous ma vai di qui l et été mari voi la vache aphaonis ? et qui l sont bien et gra surtout la fruitière a anguisse ? les moutons et les brebis qui sot tre bien [...]”.

Ikusirik frantsesaz idazteko zituen zailtasunak, bi galdera etorri zaizkigu burura: zertarako frantsesaz idazteko ahalegina egin? Eta zergatik, gainera, etxeko egunerokotasuneko biziak hitz egiteko frantsesa

⁶ Clément Robert Elisondo egun Ikerzaleak elkarteko lehendakaria denaren birraitona zen.

⁷ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoak, 87J art.7, 1874.

⁸ Pertsona bakoitzaren idazteko modua errespetatzen saiatu gara. Hitz baten esanahia argi ez dugunean, ondoan galdera-marka bat jarri diogu.

erabili? Jean-Pierre Sylvestrek (2004, 134 or.) azaltzen duen moduan, gizarte baten ala gizatalde baten kultur sisteman edozein gauza baino gehiago baloratzen diren objektuak eta adierazpenak identifikatu daitezke, hots, kultura landua dei dezakeguna; beraz, kultura landu hori sen onaren alderdietako baten parte da, inork ezin baitu bere balioa eta garrantzia kolokan jarri. Zentzu horretan, frantsesa sen onaren barruan balio handiena duten produktu kulturalen multzo gisa ulertuta, estatu-nazio frantsesaren sinbolo garrantzitsuenetariko bat da. XIX. mendearen bukaeran euskal landa-eremuko beheko mailen ikuspegitik frantsesa oraindik kultura nagusiari atxikirik jarraitzen zuela ageri bada ere, ukazina da hizkuntza horren erabilera mailan beste esparru batzuk ere irekitzen ari zirela.

3.2 Euskara ala frantsesa emigranteen gutunetan

Josu Amezagak (1994, 182 or.) dio “gizarteko harreman material eta sinbolikoetan menpekoa denak ez du, beti, aurkakotasunez edo alternatibaz erantzuten [...], kultura popularretan logika bat baino gehiago aurki daiteke”. Ildo horretan, klase herrikoiek euren menpekotasun egoeran ez zuten erresistentzia moduan euskara frantsesari kontrajarri. Jendeak, ordea, diglosia egoera horretan, euskararen lekua, ala lekuak, hobeki esanda, mugatu zituen bere usadioetan. Horixe da euskal migranteen gutunek erakusten digutena.

XIX. mendeko euskal migranteen gutunak ez dira bearnotar migranteen gutunetatik urruntzen, ez bada ezaugarri garrantzitsu batengatik: euskaldunek, batez ere behe-klasekoek, maiz euskaraz idazten zuten, alegia, euskararen erabilera arrunta zen⁹. Duhalt familiaren fondoan arakatutako 146 gutunetatik 7k euskara eta frantsesa nahasten dituzte (gehienetan gutuna ia erabat frantsesez idatzia dago, baina tartean euskarazko hitzak edota esaldiak txertatuta daude); 3k gaztelania eta euskara; 18 euskaraz daude; 23 gaztelaniaz eta gainontzeko 94ak frantsesez. Bestaldetik, Elissondo fondokotik 29 gutun irakurri ahal izan ditugu: horietatik 17 euskaraz daude, 11 frantsesez eta 1 gaztelaniaz.

Duhalt fondoaren analisi kuantitatibo bat eginez gero, ezin genezake esan euskararen presentzia nabarmena denik. Baina halako analisi hutsa tranpatia izango litzateke, kontuan hartu behar dena ez baita kopuru hutsa, baizik eta nor den igorlea (haren gizarte-klasea), nori dagoen zuzenduta gutuna, nondik dagoen igorrita eta gutunean zer gairi ekiten zaion. Azterketak euskara gai pribatu edota barrukoentzat erabilia izan dela erakusten du gehienbat. Euskarak, oro har, lagunarteko komunikazioa betetzen jarraitu zuen. Norbanako sozializazio prozesua eta sen onaren –bizimolde jakin bat osatzen dituzten irudikapenak– jabekuntza hizkuntza horretan egin izan zenez gero, sozializazioak eta horrek berekin daramatzen praktikak (komunikazioa, esate baterako) euskararen oinarrituta jarraitu zuten (Sylvestre, 2004, 130 or.).

Arrazoi horrengatik ere ez da harrigarria etxeko lanen gaiak, bai eta horren inguruan eraiki daitezkeen irudi guztiek ere euskararen iturria zutela baieztatzea. 1873an Elisa Duhaltrek Urdiñarbetik bere aitari (Thomas) igorritako gutun batean etxaldeko animalien izenak euskaraz daudela irakur daiteke, nahiz eta gutun osoa frantses dotore batean idatzita egon: “Nous avons l’intention de porter la pierre mais les vaches boitent excepté, Montça, Iribourne bigor, eta Areciaren ? ama, nous espérons que ça leur passera bientôt”¹⁰. Era berean, 1870ean Jean Urrutyk Paristik bere anaiari frantsesez idatzitako gutun batean uztak ugariak izan zitezela desiratzeko “lekuko erlijioarekin”¹¹ loturiko errefracu bat txertatu zuen euskaraz: “St. Grégorin mendian emanen diçu orai ancukéri ? arentaco”¹². Thomasi zuzendutako beste batean Urrutyk pertsona baten izaera deskribatu nahian euskarazko esaldi bat txertatzen du: «abéré ohilec algaratça maiteen dizie et ce Courouchet doit craquer dans sa vieille peau de vous voir encore sur pied»¹³.

⁹ Ariane Bruneton-Governatoriren eta Bernard Moreuxen arabera, eskolaren eraginaren ondorioz bearnotarrek frantsesez idazten zuten, nahiz eta, oro har, bearnesa ahozkotasan esparruan nagusia izan (Bruneton-Governatori eta Moreux, 1997, 71 or.).

¹⁰ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.6, 1873.

¹¹ Xabier Itçainaren (2001, 354 or.) kontzeptua berreskuratzeko: “religion locale”.

¹² Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.6, 1870.

¹³ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.6, 1873.

Hala eta guztiz ere, gutunak idazteko hizkuntzaren hautaketa ez da hain sinplea eta ez du beti azalpen argirik ala eskematikorik. Euskararen esparrua harreman “pribatuena” bazen ere, Duhalt fondoan eskakizun formal ala ofizialekin loturiko gutunak ere topatu ditugu. 1883an, kasurako, Jean-Pierre Pucheuk, Sallaberry notarioaren bitartez, Thomas Duhalti mezu bat helarazi nahi zion, non dirudienez Thomasi zor dion ordainketa baten aferaz mintzo den: “Nahi çuntudan othoi nahi deraçunez Mousde Uhalti heltu nahi deikunez utçi soumma hura ehunaren lauetan bestela phagatu nahi dugula ceren hartan ukheiten ahal dugula eta ahal becaign bertan arrapostu eginen deikuçu finitzen dit baratzen niçalaric çoure cerbutchari fidel biçicoz”¹⁴.

Gutunaren edukiak Pucheu Thomasen zorduna zela adierazten du, eliteen ordezkari bat zen heinean Thomasen eginkizunen artean maileaguak egitea baitzegoen. Hemen bat gatoz James R. Lehningen (1995, 146 or.) baieztapenarekin: “dialects [tokian tokiko hizkuntzak] did not always separate peasants from the culture of their bourgeois countrymen; school did not always manage to destroy such elements of local culture”. Aldiz, Sallaberry notarioak Thomasi Pucheuren arazoa azalduz igorri zion gutuna frantsesetik idatzita dago, eliteen arteko komunikazioan frantsesa nagusitzen zela azpimarratuz.

Neurri askoz apalagoan klase dirudunek ere erabiltzen zuten euskara harreman pertsonaletarako. Data eta lekurik gabeko (Muskilditik ziur aski) gutun batean Marie izeneko Thomasen arrebetako batek¹⁵ euskara eder batean (“ene Thomas eta anaye maytia”) bere anaiari herrian gertatutako istorio ez ohiko bat kontatzearekin batera (“Mundia Pias gora utculiric ducu Musculdin ere...”), testuan zehar eragina izatea uzten die giza grinei. Aldiz, Elisa Duhaltrek bere aitari zuzendu zizkion gutun guztiak frantsesetik idatzita daude.

Era berean, Thomasen beste arrebetako baten gutunak ere frantsesetik daude, eta, kasu horretan, hizkuntzaren hautaketa arrebaren kokapenarekin zerikusia duelako susmoa dugu, Bordeletik igorriak baitira¹⁶. Akatsekin bada ere, arreba horren bi gutunak guztiz daude frantsesetik, lehen ikusitako Jean Urrutyk bere anaiari igorritako gutuna bezala. Urrutyk otsein zebilen Parisen eta bere anaia laborari zen Urđiñarben. Bi adibideetan frantsesaren hautua sen onaren bitartez argitu daiteke, bai eta Ameriketatik euskaldun askok beren senideei gutunak gaztelaniaz bidali izana ere, gerora ikusiko dugun bezala. Sen onak, bizimolde gisa ulertuta, gizarte jakin batean erabateko murgilketa eskatzen du, norberak gizarte horren irudikapen, sinbolo eta praktikek osatzen duten sistemari egokitu ahal izateko.

Ildo horretan, hizkuntza, harreman sareak josten ahalbidetzen digun heinean, bizimolde jakin baten barneratzearen oinarrian dago. Jean Urrutyk eta Thomasen arrebak frantsesetik idatzi behar zuten, beren ingurumena frantsesetik eratzen zelako. Urrutyren kasuan, frantsesa modu “ez arautuan” ikasi zuela esango genuke (baliteke eskolan ikasi izana, baina seguru asko ikasketa prozesua bortxaz azkartu zen Parisera lanera joan behar izan zelako). Haren semeak, aldiz, Sylvestrek (2004, 130 or.) “apprentissage par immersion” eta “apprentissage plus formalisé” deitzen dituen bi moduak jaso zituen: “François va tres bien et il commence d'apprendre bien à lécole il parle très bien le français et lis couramant et commence à écrire”¹⁷.

3.3 Gaztelaniaren lekua

Ameriketara edo Espainian bizi ziren euskaldunek gaztelaniaz idazten zuten gaztelaniak berak euren errealitatea osatzen zuelako, bai eta, frantsesaren antzera, ama-hizkuntza ez zen heinean, hizkuntza berri bat ikasteak ematen duen prestigioa eskaintzen zuelako. “Escribo esta carta en español para su satisfacción” esaldiarekin amaitzen du gutun bat J. B. Cougetek, Mexikon kokatuta zegoen Thomasen ilobak¹⁸. Agerikoa da Thomasi idazten ziotenek harentzat gaztelaniak zuen inportantzia ezagutzen zutela, Thomas Mexikon ibilia izan baitzen eta bertako emakume batekin seme bat izan baitzuen (1850 inguruan).

¹⁴ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.8, Barkotxe, 1883.

¹⁵ Thomas Duhaltrek hamar anai-arreba izan zituen: 4 anaia eta 6 arreba. Marie izeneko hiru ahizpa ziren.

¹⁶ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.6, 1873, Marie Duhalten bi gutun: bat Thomasi eta bestea bere ahizpa Annari zuzendua.

¹⁷ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.7, 1874.

¹⁸ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.7, 1874.

Catherine Ithurbidek Thomasi igorri zion gutun batean igorlearen arrandiatzeko joera ageri da. Arrandia ez zegoen Thomasi zuzenduta; haatik, herrian gelditu ziren beste pertsonak haren zorte onaren berri izatea zen helburua. Catherinek Ameriketara emigratu zuen¹⁹, esaten duenagatik pentsa dezakegu denbora gutxi zeramala han gutuna idatzi zuenean, baina argi uzten du harrotasuna eragiten zioten gauzen artean gaztelanian egiten ari zen aurrerakuntzak zeudela: “Orai hebeco beriac iqhasten hasi tit hortico houna hanich diferentutçu orai costumaturic nuzu hebeco biziziari; eta laceturic ounxa zaldiz costumatchen ari nutçu eta exepagnoularen iqhasten ahal oroz orai conprenitçen dit eta habochic contrestatçen orai lacetago itçanen nitçala ezparantcha dit; Ahizpa Mariac iscribatu zitaten Anac Allandec gabrielac eran zela hariec igorico nundiela beste plantaz prestaturic eratçu Mariari eran ditçen nic cechi gouraitçi eta nic eztudala bihozin phenaric françiatu asci gouztian prestaturic jin gabez”. Izan ere, 1890eko Catherineren beste gutun bat topatu dugu zeina gaztelaniaz idatzita dagoen osorik, bukaerako agurrak ez ezik.

Marguerite Caset Carricabururen adibidea adierazgarria da hizkuntzen erabilera bereiztua erakusteko. Marguerite neskamen zebilen Madrilen, “mis Señores” deitzen zituen batzuen etxean. 1874tik 1875era gutxienez sei gutun igorri zizkion Thomasi eta horietatik lautan mesedeak eskatzen dizkio haren gaztelaniak ahalbidetzen zion era formalenean (dirua eta bere bataio-agiria).

Lehen adibidea: “Querido Amigo Tomas despues de saludarte y gualmente de mis hermanos. Yo sigo buena Tomas enel momento que recibes esta [carta] haras el favor de que el cura dela parroquia estienda mi fe de Bautismo y gual que la que remito poniendo que soy soltera des pues la llevas en casa del Obispo para que la firme y ponga el sello, y lue go a lega le sarta? el consul de españa todo esto me corre mucha prisa [...] porque quie ro contraer matrimonio”²⁰.

Bigarren adibidea: “[...] le dirijo la presente para manifestarle lo siguiente. Que cuando llegué à esta [ciudad] puse un establecimiento a medias con otro y no abiendome querido dar cuentas tube que demandarle puieis? y resultando que yo tenia razon por lo que pedia que era el establecimiento salio que entregandole yo cuatro mil reales me quedo con el y no estando mis Señores en Madrid le escribo las dos cartas esperando de U. que para el dia ¿ no me falten los cuatro mil reales por que si no lo perdería todo en U. espero que no tengo otro padre mas que U. que me faboresca por que si no me encontrare en la calle”²¹.

Bi gutunen idazkera ezberdina denez gero, pentsa dezakegu Margueritek testuak idazteko laguntza eskatu ziola norbaiti. Horrek ez du zalantzan jartzen, alabaina, bi gutun horien kutsu serioak hirugarren gutun honen tonu pribatuarekin kontrastatzen duenik: “Ay Tomas suri estheisut nic yscibathu oray arthino eri egon nusu ni atrebisen ahal suri yscribasera motivo de que esta? icousten dusun besala ene aneic conprenisen nisie bestec esthacit, elisac ere menthuras conprenithuco disu Ay Tomas hanis pena ycusi dit heben bena oray trancilago nusu, egin dithadasiet hanis ene hebenthi elqueasi behares bena esthisu eresithu nic suri esquerac heben nusu bena egin dithadasiet hanis esthafa despendiatu dit bena es hec egin dien besan besthe enecisien ja?..lia harec disu causathu enegal erasi beharres berac galdu thusu enusu elkisen bathere echethi es elisat es deusetharat, es dit ihouri ere cofiancharic echen ustheco [...] es dit hainbesthe arancura hor harthino badisie inbeilia, Tomas es dit ousthe eszcontuco nisan lehen ydeia harthu nisun ene ynteresagathi, es galdu nahis bena orai es dit hoeres arancuaric, oray eresituco dit [...]”²².

Azken adibide honetan Margueritek bere barrena hainbestearaino azaleratzen du, non beraren eta Thomasen arteko hierarkia saltoa lausotzen baita: sufritzen ari den penak, jendearen onespen eza, Elizak konprenituko ote duen zalantzan (zoritxarrez ez dakigu zer gertatu zaion, akaso aurreko gutunean aipatutako negozioren porrota), ez ezkontzeko erabakia... Ezin daiteke, beraz, gutun hori idazteko

¹⁹ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.10, sans date. Zoritxarrez ez dakigu zer harreman zuen Catherinek Thomasekin, ez eta non bizi zen emigratu ondoren. Gutunak ez du datarik.

²⁰ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.7, 1875.

²¹ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.7, 1874. Gutun hau, 1874koa izan arren, 1875eko karpetan dago kokatuta.

²² Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa, 87J art.7, 1875.

euskararen hautaketa halaberrez kontsideratu. Pentsa genezake lehenengo bi adibideen kasuan gaztelaniaren hautaketa beharrak eragin zuela, gutunak idazteko laguntza eskatu behar izan baitzuen Madrilen euskaraz idazten zekien norbait aurkitzea zaila izan zitekeen heinean. Baina kontuan hartuz Margueritek ez zekiela euskaraz idazten (1870eko gutun bat topatu dugu non ageri den ez zegoela euskaraz alfabetatua), gutun bakoitzaren kutsuaren arabera bi hizkuntza ezberdinen hautaketa ez dugu kasualitatetzat jotzen.

Beste maila batean, gaztelaniaren erabilera ez zegoen prestigioarekin edo onespenearekin lotuta. Migranteek ahaideei, hau da, pareko gizarte-klasekoiei, idaztean gaztelania erabil zezaketen gizarte berrian moldatzeko arazorik ez zutela erakusteko. Kasurako, Elissondo fondoan alaba batek 1869an bere gurasoei bidalitako erantzunean euskara hizkuntza nagusia izan arren, gaztelaniaz txertatuta dagoen pasarte bat ere irakur daiteke: “Letra hau eckiribacen dinat nihauren bguztia hala icanec vasco cahar bezperan Marianita cebando mate eta yo tomando iskribiendo Mariquita [¿] i Bernardito otro Lahaico [¿] dormiendo Bernardo trabakhando alanbrando mi ermana querida mándeme aber sientregado ela carta de Bernardo este ickribido por migusto aci en castilla jace kaco Margarita dela icquina con el Pedro pandaeroque andaba aya ahora mándeme todalac noticiac de aya aber como encontró mama i tata i ermana Maria todo conata”²³.

Ageri da idazkera fonetiko delá hein handi batean (hots, idazten du entzuten duen moduan), baina garrantzia duena hemen ez da ez zekiela gaztelaniaz idazten, baizik eta gaztelaniaz komunikatzeko gai zela, hizkuntza berri batean moldatzeko trebezia zuela.

Ameriketatik etxera itzuli ziren emigranteen artean gaztelaniaren erabilera mantendu zela baieztatu dugu. Pierre Duhalték –Mexikon ibilia zen– 1870ean bere lehengusu Thomasi Mauletik igorri zion gutuna gaztelania hutsean dago: “Hasme favor de mandar a Rosita en tu coche, por que los de Monein vienen esta tarde y tube que mandar mi coche a buscarlos a Navarrenx. Tu primo que te quiere Pedro”.²⁴

4. Ondorioak

Ez dezagun ahantz aztertutako gutunak Ameriketara, frantses ala espainiar estatuetakoa hiriren batean bizi ziren euskal emigranteek idatzi zituztela, baldin eta guztiek Zuberoako landa-eremuan jatorria bazuten ere. Hortaz, azterketak garaiko paisaia linguistikoaren gutxi gorabeherako irudia eskaini dugu.

Euskal emigranteek frantsesez idazteak ez zuen Zuberoako hizkuntzen erabilera sakonki transformatu, berehalako hartan bederen, baina ez dago dudarik horren bitartez euskaldunak frantsesera gero eta gehiago ohitu zirela. Are gehiago, familia eta lagunarteko komunikazioa frantsesez egiteak diglosia egoera barneratzea eragin zuen, azken finean, frantsesa zen landa-eremutik alde egiteko eta hirian integratzeko medio garrantzitsuenetako bat.

Halere, ikusi denez, klase herrikoiek ez zuten euskararen erabilera alboratu; aitzitik, familiarterko komunikazioak euskaraz izaten jarraitu zuen hein handi batean. Halaber, klase ezberdinetako pertsonak ere beren artean euskara enplegatzen zuten, baldin eta familia aberatsetako senideek frantsesa nagusitu zuten. Paisaia linguistiko horren baitan euskarak arlo pribatuan zuen bere leku nagusia.

Bestaldetik, gaztelaniak, emigranteentzat behar-beharrezko hizkuntza bat izateaz gain, Zuberora itzuli ziren emigranteen artean ere erabilia izaten jarraitu zuen eta prestigio modukoa eskaintzen zuen, Ameriketara dirua egin eta etxera itzuli ahal izanaren seinalea baitzen.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hasitako paisaia linguistiko honen azterketa kronologikoki luzatzea komenigarria izango litzateke. Hala, gutunak iturri nagusi moduan enplegatzeaz gain, Eleketa programan bilduta dauden ahozko memoriak ikerketa aberastuko lukete. Horrelako ikerketa batek Zuberoako klase

²³ Elissondo familiaren fondo pribatua. Buenos Airesetik (Argentina) igorritako gutuna. Uste dugu igorlea Jean eta Dominica Errecalde bikotearen Marie izeneko alabetako bat zela.

²⁴ Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoan, 87J art.6, 1870.

herrikoien artean hizkuntzen erabilerak izan zuen eboluzioaren ildoak eskainiko liguke. Halaber, hemen erabilitako metodologiak Ipar Euskal-Herriko gainontzeko eskualdeen kasuak aztertzeko ere balio digu.

Oro har, gure azterketa lagin zehatz batean oinarrituta dagoela kontuan hartuz, etorkizuneko ikerketek azterketa ñabartu eta osa dezakete.

6. Erreferentziak

- Aitaren bizia. Laurent Elisondo (1929-2006). *Sa vie racontée par lui-même*. Fondo pribatua.
- Amezaga, J. (1994). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Baionako eta Euskal Herriko Artxibategia: Duhalt fondoa.
- Bruneton-Governatori, A. & Moreux, B. (1997). Un modèle épistolaire populaire. Les lettres d'émigrés béarnais, in D. Fabre, *Par écrit. Ethnologie des écritures quotidiennes*, Éditions de la Maison des sciences de l'homme. Paris, 69-86.
- Chartier, R. (1984). Culture as Appropriation: Popular Cultural Uses in Early Modern France, in S. L. Kaplan (arg.), *Understanding Popular Culture*, New Babylon, Berlin, New York, Amsterdam, 229-253.
- Fabre, D. (1993). Introduction, in D. Fabre (arg.), *Écritures ordinaires*, Centre Georges Pompidou, Paris, 11-29.
- Fishman, J. A. (1988). *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madril.
- Géa, J.-M. (2015). Le dialecte dans l'écriture de la guerre : la part absente ?, in A. Steuckardt (arg.), *Entre village et tranchées. L'écriture de poilus ordinaires*, Inclinaison, Uzès, 53-65 or.
- Hagège, C. (2000). *Halte à la mort des langues*, Odile Jacob, Paris.
- Hymes, D. (1972). Models of the interaction of language and social life, in J. Gumperz eta D. Hymes (arg.), *Directions in sociolinguistics: the ethnography of communication*, Cambridge University Press, Nueva York, Cambridge.
- Itçaina, X. (2001). Catholicisme et construction identitaire basque : retour sur le postulat d'une sécularisation achevée. *Lapurdum*, 6. <http://journals.openedition.org/lapurdum/1239>.
- Larroque, J., Elisondo, R. (2021). *Maule-Lextarre agerian. Découvrir Mauléon-Licharre. Volume 2 En marchant dans la ville*, Ikerzaleak.
- Le Barre, Y. (1995). Langues et usages sociaux en Basse-Bretagne, in M. Lagrée (arg.), *Les parlers de la foi : religion et langues régionales*, Presses Universitaires de Rennes, Rennes, 97-105.
- Lehning, J. R. (1995). *Peasant and French. Cultural Contact in Rural France during the Nineteenth Century*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Levi, G. (1989). *Le pouvoir au village. Histoire d'un exorciste dans le Piémont du XVIIe siècle*, Gallimard, Paris.
- Moulin, A. (1988). *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*, Seuil, Paris.
- Sylvestre, J.-P. (2004). Culture, imaginaire social et sens commun, in P. Guenancia eta J.-P. Sylvestre (arg.), *Le sens commun: théories et pratiques*, Éditions Universitaires de Dijon, Dijon, 129-148.
- Zaldibe, M., Joly, L., & Gardner, N. (2015). *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo.

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu hau egun garatzen ari garen historia saileko doktorego-tesiaren atal batetako laburpen bat da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu hurrengo pertsona hauei haien laguntza preziatuagatik: Robert Elisondo eta Marijo Mujicari -Ikerzaleak elkarteko kideak-, Allande Etxart eta Marguerite Rekalti, Tittika Rekalti eta Xabier Itçainari. Eskerrik asko guztioi!